

# EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO GAZTE ETORKIN TUTELATU OHIEN GIZARATERATZE PROZESUAK. GIZARTE LAGUNTASUNEZKO ESKU-HARTZEAK AZTERGAI

**Tesiaren egilea:** Maddalen Epelde Juaristi

**Unibertsitatea:** Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

**Saila:** Soziologia II

**Tesi-zuzendaria:** Benjamín Tejerina Montaña

**Tesiaren laburpena:**

Azken hamarkadetan, bizitza hobea baten bila beste herrialde batera bakarrik emigratzeko erabakia hartu duten adingabe atzerritarrak agertu dira mapa migratorioan: Inoren Kargura Ez Dauden Adingabe Migratzaileak (IKEDAM). Fenomenoa Europako zenbait tokitan nabarmendu da, baita Estatu Batuetan edo Argentinan ere. Espainiako kasuan, adingabe horien banaketa desberdina da, eta hartzaile nagusien artean EAE aurkitzen da.

Adin txikiko izanik iristen direnez, legediak haien interes gorena errespetatu beharra ezartzen du, eta haurtzaroaren babeserako sistemak harrera emandako adingabeen oinarrizko beharrak asetzen ditu 18 urte bete arte. Aldiz, une horretan, babes instituzionaletik at geratzen dira, eta harrera-gizarterteko integrazio-prozesua erabat zailtzen zaie. Hori dela-eta, egoera berezi horretan aurkitzen diren subjektuen gizarterte-prozesuak aztertzea du ikerketa-objektutzat tesi honek.

Ikerketaren 1. helburua da aztertzea IKEDAM ohiak gizarterte-prozesuari dagozkion esparru eta dimentsioetan zein egoeratan aurkitzen diren. Eta hipotesi modura, gaur egungo krisi ekonomikoak IKEDAM ohien gizarterte-eredu tradizionala, enplegu bat eskuratzearen bidez lortzen zena, kolokan jartzea eragin duela planteatzen da batetik; eta emantzipazio-baliabideak ez direla gaur egungo testuinguru sozioekonomikora egokitzen bestetik, IKEDAM ohien gizarterte bermatzeko zailtasunak gehitzen direlarik.

Gizarterte-mekanismo tradizionalen eraginkortasuna zalantzan jarrita, begirada izaera ezberdineko proiektu eta programetara bideratu da. Horien artean *Izaba* proiektua nabarmentzen da, IKEDAMak familia autoktonoekin harremanetan jartzea helburu duena. Zentzu horretan, doktoradutza-tesi honen 2. helburua *Izaba* proiektuan parte hartu duten IKEDAM ohiek pilatzen duten gizarte-kapitala ezagutzea da, eta horrek gizarterte-prozesuan nola eragiten duen ulertzea. 3. hipotesi gisa *Izaba* proiektuan parte hartu duten gazte etorkinek gainontzekoek baino gizarterte-egoera hobea aurkeztuko dutela planteatzen da, familia

autoktonoengandik gizarteratze-prozesuan lagunduko dien gizarte-laguntasuna jasoko dutela uste baita.

Erabili den metodologia kualitatiboa izan da; izan ere, gizarte-errealitatearen analisi kualitatiboak etorkinen gizarteratzea bezalako prozesu konplexu eta kuantifikatzeko zailak direnak ulertzea ahalbidetzen du. Teknika ezberdinen artean, elkarrizketa erdi-egituratua hautatu da. Ikerketa EAEko hiru lurralde historikoetan erdiratu da, bakoitzean IKEDAM ohiak (16), haiekin lan egiten duten profesionalak (5), haien errealitatearekiko ezagutza duten adituak (2), eta izeba familiak (2) elkarrizketatu dira; guztira 25 pertsona.

Emaitzek erakutsi dute planteatutako hipotesiek norabide egokiari jarraitzen diotela. Krisi ekonomikoak IKEDAM ohiek lanpostu bat eskuratzea erabat zailtzen duela ikusi da, duela gutxi arte horien gizarteratze-tresna nagusia izan baita (1. hipotesia). Emantzipazio-baliabideak ez direla gaur egungo testuinguru sozioekonomikora egokitu behatu da, horien azken helburua lan-merkatara sarbidea izatea delarik; aldiz, gaur egun xede hori betetzea oso zaila da, eta, beraz, baliabide horiek ez dira gazte etorkinen gizarteratze-prozesuak laguntzeko eraginkorrak suertatzen (2. hipotesia). Azkenik, adin txikiko ziren bitartean *Izeba* proiektuan parte hartzeko aukera izan zuten gazteek gizarteratze-egoera hobetagoa aurkezten dutela nabarmendu da, izebek eskaintzen dieten laguntasuna dela-eta (3. hipotesia).